



ELKARRIZKETA
SOZIALERAKO MAHAIA
MESA DE
DIÁLOGO SOCIAL

**2021EKO URTARRILAREN 27AN ACTA DE LA REUNIÓN DE LA MESA
EGINDAKO EUSKAL AUTONOMIA DE DIÁLOGO SOCIAL DE LA
ERKIDEGOKO ELKARRIZKETA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL
SOZIALAREN MAHAIAREN PAÍS VASCO CELEBRADA EL DÍA 14
BILERAREN AKTA. DE SEPTIEMBRE DE 2021.**

2021eko irailaren 14ko 11:30etan, bildu dira ondoren adieraziko ditugun pertsonak, Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburuak egindako deialdiaren gai-ordenan ageri diren gaiak lantzeko:

Siendo las 11:30 horas del día 14 de septiembre de 2021, se reúnen las personas que a continuación se señalan, al objeto de tratar los asuntos contenidos en el orden del día de la convocatoria realizada por la Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo:

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu Renteria jauna bertaratu da.

Asiste el **Lehendakari del Gobierno Vasco, Excmo. Sr. D. Iñigo Urkullu Renteria.**

EUSKO JAURLARITZA ORDEZKATUZ, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian ondorengo zerrendan ageri diren jarduera-esparruetan eskumena duten sailtako titularrak egongo dira:

EN REPRESENTACIÓN DEL GOBIERNO VASCO, forman parte de la Mesa de Diálogo social las personas titulares de los siguientes departamentos con competencias en las áreas de actuación que se relacionan a continuación:

• Lana, Enplegua eta lan-harremanak: Idoia Mendia Cueva andrea, Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua, Mahaiko Presidente moduan jardungo duena.

• Trabajo, empleo y relaciones laborales: Dña. Idoia Mendia Cueva, Vicepresidenta Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo, que actúa en calidad de Presidenta de la Mesa.

• Industria, garapen ekonomikoa: Aranzazu Tapia Otaegui andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua.

• Industria, desarrollo económico: Dña. Aranzazu Tapia Otaegi, Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente.

• Hezkuntza: Jokin Bildarratz Sorron jauna, Hezkuntza sailburua.

• Educación: D. Jokin Bildarratz Sorron, Consejero de Educación.

• Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Berdinatasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.

• Igualdad y políticas sociales: Dña. Beatriz Artolazabal Albeniz, Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

Aipatutako sailburuekin batera, adierazitako gaietako sailburuordeak ere bileran izan dira:

- *Elena Pérez Barredo andrea, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea.*
- *Alfonso Gurpegui Ruiz jauna, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea.*
- *Mikel Amundarain Leibar_ jauna, Industria sailburuordea.*
- *Jorge Arévalo Turrillas jauna, Lanbide Heziketako sailburuordea.*
- *Lide Amilibia Bergaretxe Andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea*
- *Miren Izaskun Landaida Larizgoitia andrea ere, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria*

Junto con las Consejeras y Consejero, asisten los viceconsejeros y las viceconsejeras de las materias referidas:

- *D. Elena Pérez Barredo, Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social.*
- *D. Alfonso Gurpegui Ruiz, Viceconsejero de Empleo e Inclusión.*
- *D. Mikel Amundarain Leibar, Viceconsejero de Industria.*
- *D. Jorge Arévalo Turrillas, Viceconsejero de Formación Profesional*
- *Dña. Lide Amilibia Bergaretxe, Viceconsejera de Políticas Sociales*
- *Dña. Miren Izaskun Landaida Larizgoitia, Directora de Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer.*

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari-tza handiena duten eta Mahaian integratzeko eta aktiboki parte hartzeko erabakia hartu duten **ERAKUNDE SINDIKALAK ORDEZKATUZ:**

EN REPRESENTACIÓN DE LAS ORGANIZACIONES SINDICALES más representativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco que han aceptado integrarse y participar de forma activa en la Mesa:

- *Euskadiko CCOO ordezkatzuz, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian parte hartu du haren idazkari orokor Loli García García andreak. Pertsona hauekin batera bertaratu da:*

- *En representación de CCOO de Euskadi, forma parte de la Mesa de Diálogo social su Secretaria General, Dña. Loli García García, que comparece acompañada de las siguientes personas:*

- *Arantza Martínez Tobalina andrea, Enplegu eta Kualifikazio Profesionalaren idazkaria.*
- *Fran Osuna Matamoros jauna, Arabako Lurralde arduraduna*

- *Dña. Arantza Martínez Tobalina, Secretaria de Empleo y Cualificación Profesional.*
- *D. Fran Osuna Matamoros, Responsable Territorial de Álava.*

- *Euskadiko UGT ordezkatzuz, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian parte hartu du haren idazkari orokor Raúl Arza Vélez jaunak. Pertsona hauekin batera bertaratu da:*

- *En representación de UGT Euskadi, forma parte de la Mesa su Secretario General, D. Raúl Arza Vélez, que comparece acompañado de las siguientes personas:*

- *Arantza Niño Núñez andrea, Enplegu eta Prestakuntzako idazkaria*
- *Daniel González Taboada jauna, Politika Sindikal eta Instituzionaleko idazkaria.*

- *Dña. Arantza Niño Núñez, Secretaria de Empleo y Formación*
- *D. Daniel González Taboada, Secretario de Política Sindical e Institucional.*

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartza handiena duten **ENPRESA-ERAKUNDEAK ORDEZKATUZ**, Mahaian parte hartu dute **Confebaskeko** presidente Eduardo Zubiaurre Ariznabarreta jaunak eta harekin batera joan diren pertsona hauek:

- *Eduardo Aréchaga Cilleruelo jauna, zuzendari orokorra.*
- *José Miguel Ayerza Mendiburu jauna, ADEGIko idazkari orokorra.*
- *Francisco Javier Azpiazu Lasuen jauna, CEBEKeke idazkari orokorra.*
- *Juan Ugarte Aguirrezabal jauna, SEAKo idazkari orokorra.*
- *Virginia Múgica andrea, Lan Harremanetako zuzendaria.*

IDAZKARIA: Arantza González López andrea, Lan eta Enpegu sailburuaren lan-gaietako aholkularia.

Lehendakariordeak, lehenik, eskerrak eman dizkio lehendakariari Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren bileran parte hartzeagatik. Kide guztiak bat datoz sentimendu horrekin.

Era berean, lantaldeetan lortzen ari diren akordioen balioa nabarmendu du, gure gizartearentzako egiturazko alderdiak lantzen ari baitira, langileei mesede egiten dieten premiazko neurriak (Aldi Baterako Enpegu Erregulazioko Espedienteen osagarriak, esaterako), eta etorkizunari begiratzen baitzaio – eta hori funtsezkoa da – . Oinarri sendoak finkatzen ari dira dagoeneko bizitzen ari garen eta biziko ditugun eraldaketa sakonen aurrean Euskadi prestatzeko.

Egiturazko izaera horregatik eta sailen arteko eta gizarte eragileekiko lankidetzaborondateagatik, lehendakariordeak guztien izenean eskertu du lehendakariak parte hartu

EN REPRESENTACIÓN DE LAS ORGANIZACIONES EMPRESARIALES MÁS REPRESENTATIVAS en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, forma parte de la Mesa el Presidente de **Confebask** D. Eduardo Zubiaurre Ariznabarreta, que comparece acompañado de las siguientes personas:

- *D. Eduardo Aréchaga Cilleruelo, Director General.*
- *D. José Miguel Ayerza Mendiburu, Director General de ADEGI.*
- *D. Francisco Javier Azpiazu Lasuen, Secretario General de CEBEK.*
- *D. Juan Ugarte Aguirrezabal, Director General de SEA.*
- *Dña. Virginia Múgica Conde, Directora de Relaciones Laborales.*

SECRETARIA: Dña. Arantza González López, asesora en materia de trabajo de la Consejera de Trabajo y Empleo.

La Vicelehendakari comienza agradeciendo la presencia del Lehendakari en la reunión de la MDS, un sentir compartido por todos sus integrantes.

Resalta, a su vez, el valor de los acuerdos que se van alcanzando en los diferentes grupos de trabajo, donde se están abordando aspectos estructurales para nuestra sociedad, medidas urgentes que benefician a las personas trabajadoras (como los complementos de los Ertas) y donde –y esto es fundamental– se mira al futuro. Se están sentando unas bases sólidas para preparar Euskadi ante las profundas transformaciones que ya estamos viviendo y que vamos a vivir.

Por ese carácter estructural y por la voluntad colaborativa entre los diferentes departamentos y con los agentes sociales, la Vicelehendakari agradece la participación del

izana, eta, aldi berean, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren lanen balio politiko handia nabarmendu du, Jaurlaritzaren barruan eta gizarte-eragileen laguntzarekin lan egiteko modu berri bat dagoela agerian uzten duena.

Lehendakari en nombre de todos, a la par que resalta el gran valor político de los trabajos de la MDS, evidencia de una nueva forma de trabajar en el seno del Gobierno y con la colaboración de los agentes sociales.

Egindako deialdiari erantzunez, lehendakariordeak gogorarazi du bertaratutako guztiek gai-zerrenda dutela, eta, beraz, horren arabera hasiko zela bilera.

En atención a la convocatoria realizada, la Vicelehendakari recuerda que todas las personas asistentes disponen del orden del día, por lo que da comienzo al desarrollo de la sesión conforme al mismo.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO LEHEN PUNTUA: 2020ko uztailaren 22ko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.

PUNTO PRIMERO DEL ORDEN DEL DÍA: Lectura y aprobación del acta de la reunión del 27 de enero de 2021.

Lehendakariordeak 2021eko urtarrilaren 27an egindako bileraren akta aurkeztu du, eta onartu egin da.

La Vicelehendakari presenta el Acta correspondiente a la reunión celebrada el día 27 de enero de 2021, que resulta aprobada.

GAI-ZERRENDAKO BIGARREN PUNTUA: Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko lantaldeen jarraipen-txostena eta erabakiak hartzea.

PUNTO SEGUNDO DEL ORDEN DEL DÍA: Informe de seguimiento de los grupos de trabajo de la Mesa de Diálogo Social (MDS) y la adopción de acuerdos.

Bertaratutako guztiek ezagutzen dute baliozkotzeko proposatzen den txostenaren edukia, eta horrek agerian uzten du mahaiek egindako lan handia.

Todos los presentes y todas las presentes conocen el contenido del informe que se propone para su validación, que da fe del intenso trabajo desarrollado por las diferentes mesas.

Hogeita bi (22) bilera egin dira. Balorazio orokor batean, Jaurlaritzaren estrategien barruan kokatutako ekintzak dira (Berpiztu, Euskadi Next, Enpleguaren Euskal Estrategia), parte hartzea erabaki duten gizarte-eragileekin politika publikoen ekintza itundua egitea ahalbidetzen dutenak. Lankidetz-formula arrakastatsua da, eta akordio zehatzetara eramaten da.

Han sido veintidós (22) las reuniones celebradas. En una valoración general, se trata de acciones que se enmarcan en las distintas estrategias del Gobierno (Berpiztu, Euskadi Next, Estrategia Vasca de Empleo), que permiten una acción concertada de las políticas públicas con los agentes sociales que han decidido participar. Una fórmula colaborativa de éxito que se traslada a acuerdos concretos.

Lan eta Enplegu Sailak zuzentzen dituen bi mahaiei dagokienez (Enplegua eta Lan Osasuna), hiru gai nabarmentzen dira laburki:

1.- 21/ekaineko erabakia, 20.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten eta Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espediente egoeran dauden langileei osagarriak laugarren aldiz luzatzeari buruzkoa.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren apustua izan zen krisia hasi zenetik. Orain arte emandako bultzada publiko handiari zein produkzio-sarearen sendotasunari esker, lehenago berreskuratu egin da enplegua, baita ohiko lanpostura doazen langileak ere. Hori dela eta, eragina krisiaren lehen garaian aurreikusitakoa (40.000 langile artekoa) baino txikiagoa izan da, 6.000 langilera mugatuta.

Osagarri horrek indar handia izaten jarraitzen du, eta agerian uzten du Jaurkitzeak eta gizarte-eragileek krisiaren inpaktua ahalik eta gehien murrizten jarraitu nahi dutela.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren erabakiz, osagarriak luzatu egingo dira Espainiako Gobernuaren Elkarrizketa Sozialaren Mahaian Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak luzatzen diren neurrian.

2.- Lanberriak programa, profesionalizatzeko, gaitzeko eta enplegu-nitxo berrietan lan-merkatura egokitzeko (8 milioi euroko zuzkidura).

Programa honek etorkizunera begiratzearekin du zerikusia. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak abian jarri ditu enpresen behar berriei eta langileen birkualifikazio-beharrari erantzuten dieten profilak sortzen joateko prozedurak, Europak aipatzen dituen eraldaketa handiekin bat datozenak (ekologikoa, digitala, soziosanitarioa). Arlo

Por lo que se refiere a las dos mesas que dirige el Departamento de Trabajo y Empleo - Empleo y Salud laboral-, destaca brevemente tres cuestiones:

1.- Acuerdo de junio/21 sobre cuarta prórroga de los complementos a las personas trabajadoras en situación de Erte con ingresos inferiores a 20.000 euros.

Fue una apuesta de la MDS desde el inicio de la crisis. El gran impulso público que se ha venido realizando, junto a la solidez del tejido productivo ha permitido recuperar antes no solo el empleo, sino también a trabajadores a su puesto habitual, por lo que el alcance ha sido menor al que se preveía en los primeros tiempos de la crisis (hasta 40.000 trabajadores), circunscribiéndose a 6.000 personas.

Este complemento sigue teniendo una gran fuerza, como evidencia de que el Gobierno y los agentes sociales siguen volcados en reducir al mínimo el impacto de la crisis.

Por acuerdo de la MDS los complementos se prorrogarán en la medida en que se prorroguen los Ertes en la Mesa de Diálogo Social del Gobierno de España.

2.- Programa Lanberriak para profesionalización, capacitación y adaptación al mercado de trabajo en nuevos nichos de empleo (con una dotación de 8 millones de euros).

Este programa tiene que ver con la mirada al futuro. Lanbide-Servicio Vasco de Empleo ha puesto en marcha los procedimientos para ir generando los perfiles que responden a las nuevas necesidades de las empresas y a la necesidad de recualificación de las personas trabajadoras, alineados con las grandes transformaciones que apunta Europa

askori eragiten die: osasuna, mugikortasuna, birgaitze urbanoa, ekonomia zirkularra.

(ecológica, digital, sociosanitaria). Afecta a muchas áreas: salud, movilidad, regeneración urbana, economía circular.

Hauek dira jorrotutako lehen hiru profilak: enpresak digitalizatzeko eragilea, arreta integrala zaintza sektorean, eta hiri-birgaitze eta -berroneratze jasangarriaren kudeatzailea.

Los tres primeros perfiles abordados son: agente para digitalización de las empresas, atención integral en el sector de los cuidados y gestor de la rehabilitación y regeneración urbana sostenible.

3.- Lehendakariordeak Enpresa Txiki eta Ertaintzako Kultura Prebentiboaren Euskal Behatokiaren jarraipen-bilerak nabarmendu ditu; izan ere, nahiz eta horri buruzko akordiorik ez den jasotzen Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren saio honetan, egiten duen lana estrategikoa dela uste du.

3.- La Vicelehendakari resalta las reuniones de seguimiento del Observatorio Vasco para la Cultura Preventiva para la Pequeña y Mediana Empresa, ya que, aunque no se reflejen en esta sesión de la MDS acuerdos al respecto, considera que la tarea que realiza es estratégica.

ETEek eusten diote Euskadiko enplegu gehienari eta haiek dituzte prebentzio-neurriak hartzeko zailtasun handienak. Gainera, jarduera berreskuratu ahala, ezbehar-tasaren indize kezagarriak ikusten ari dira, eta eremu horretan jarraituko da lanean intentsitate handiagoz eta ekimen berriekin.

Las Pymes son las que sustentan la mayoría del empleo en Euskadi y son las que tienen más dificultades para adoptar medidas preventivas. Se están viendo, además, unos índices preocupantes de siniestralidad a medida que se ha ido recuperando la actividad, y es en ese ámbito donde se va a seguir trabajando con mayor intensidad y con nuevas iniciativas.

- Ondoren, Industria eta Ekonomiaren Garapeneko sailburuari, Arantxa Tapia andreari, eman dio hitza eta bere sailak zuzendutako mahaiaren erabakiak azaldu ditu.

- A continuación, da la palabra a la Consejera de Industria y Desarrollo Económico, Dña. Arantxa Tapia, que explica los acuerdos de la mesa que dirige el citado Departamento.

Lehenik, lehendakariaren presentzia eskertu du.

Inicia su intervención agradeciendo la presencia del Lehendakari.

Nabarmendu du legegintzaldi honetan beste urrats bat egin dela digitalizazioaren sarreran, eta % 40ko BPGra iristeko helburua jarri dela, ez bakarrik fabrikazioarekin, baita digitalarekin eta enplegu-nitxoekin lotutako guztiarekin ere. Horrek esan nahi du enpresarean jada barneratuta dauden inbertsioak abian jartzea, eta, aldi berean, trantsizio horretan aurrerapenez lan egitea eta pertsonengan arreta jartzea.

Reseña que en esta legislatura se ha dado un paso más en la introducción de la digitalización y se ha puesto el objetivo de llegar a un PIB del 40% no solo con la fabricación, sino con todo lo relacionado con lo digital y los nichos de empleo. Eso supone que poner en marcha inversiones ya interiorizadas en el tejido empresarial, a la par que ha de trabajarse en esta transición de forma anticipada y centrarse en las personas.

Trantsizio justu bat egin behar da, Akordioan agertzen den bezala (inor ez dadila atzean geratu eta eten digitala ez dadila herritarrengana eraman). Ikuspegi horretatik, beharrezkoa da eragileak sartzea, ahal den neurrian enpleguak eta enpresak desagertzea saihesteko eta, langabeziak behera egingo balu, langileak birkualifikatzeko, prestatzeko eta abarrerako lan egin ahal izateko.

Profil berriak agertuko dira, lan egiteko modu berriak, eta aurrea hartu behar zaio. Helburu hori ezarri zen akordio hau sinatu zenean. Elkarrizketa Sozialaren Mahaian lan egin behar da, eragile guztien arteko adostasunez, inplikaturako alderdi guztiak bertan daudela eta parte-hartze eta erantzunkidetasun hori biziki lantzen direla, betiere pertsonen posizio zentrala kontuan hartuta.

Akordioaren printzipioak nabarmendu ditu: aurrea hartzea, plangintza, informazioa eta gardentasuna, elkarrizketa, lankidetzeta eta elkarlana, adostasuna eta erantzukizuna.

Industriako lantaldeak, Elkarrizketa Sozialaren Mahaia barruan, gobernantza bat eta lanen garapen bat adostu ditu, sei hileko bilera batez (urtean bi) eta sei hilean behingo jarraipen-txosten batez. Bilera gehiago egin behar badira, landu eta hitz egingo da. Elkarrizketa Sozialaren Mahaian ez daudenek parte har dezaten prestutasuna dagoela nabarmendu du, baina adierazi du hori gertatu ezean ez dela oztopo izango lanean jarraitzeko eta aurrera egiteko.

Lehendakariordeak eskerrak eman dizkio Industria eta Ekonomiaren Garapeneko sailburuari.

- Jarraian, Jokin Bildarratz Hezkuntzako sailburuari eman dio hitza.

Es preciso realizar una transición justa tal y como aparece en el Acuerdo (que nadie quede atrás y que la brecha digital no se traslade a los ciudadanos). Desde esta perspectiva, es necesaria la incorporación de los distintos agentes para evitar en lo posible la desaparición de empleos y empresas y, ante la eventual caída en el desempleo, poder trabajar para recualificar, formar, etc. a los trabajadores.

Aparecerán nuevos perfiles, nuevas formas de empleo y hay que anticiparse. Ese es el objetivo fijado cuando se firmó este Acuerdo. Ha de trabajarse en la MDS, dentro de un consenso entre todos los agentes, donde estén todas las partes implicadas y donde esa participación y esa corresponsabilidad se trabajen intensamente, atendiendo en todo caso a la posición central de las personas.

Destaca los principios del Acuerdo: anticipación, planificación, información y transparencia, diálogo, cooperación y trabajo conjunto, consenso y responsabilidad.

El grupo de trabajo de Industria dentro de la MDS ha acordado una gobernanza y un desarrollo de los trabajos con una reunión por semestre (dos al año) y un informe de seguimiento semestral. Si hay necesidad de más reuniones, se trabajarán y se hablarán. Destaca la disponibilidad a nuevas incorporaciones de quien no están en la MDS, pero no será óbice para seguir trabajando y avanzando.

La Vicelehendakari da las gracias a la Consejera de Industria y Desarrollo Económico.

- Seguidamente, da la palabra al Consejero de Educación, D. Jokin Bildarratz.

Lehenik, lehendakariaren presentzia eskertu du.

Zientziaren, teknologiaren, ekonomiaren eta oro har gizartearen bilakaera harrigarria izaten ari dela adierazi du: bilakaera disruptiboa. Bizimoduan, harremanetan, lanean, informaziorako sarbidean, duela urte batzuk pentsaezinak ziren hamaika aukera irekitzen ari dira, baina, era berean, konplexutasun handiko arrisku berriak agertzen ari dira. Gure ekoizpen-sektoreetatik lehiatzeko konplexutasuna, bilakaera teknologikoa eta gertatzen ari diren aurrerapen zientifiko garrantzitsuak barneratzeko konplexutasuna, eta alderdi humanoa eta ikuspegi humanista horren berezko balioak kudeatzeko konplexutasuna, lehendakariak agerian utzi duenez.

Gaur egun, gauzak oso azkar ari dira aurrera egiten, eta ekoizpen-sektoreen bilakaeraren ondorioz, gure enpresek lehiakortasun-esparru erabat ireki batean borrokatu, finkatu eta biziraun behar dute. Egoera horri eman beharreko erantzunak behartzen gaitu aldaketa berriak egitera.

Gauza bera gertatzen da pertsonen enpleguarekin, zeina profesionaltasun askoz konplexuago baterantz eboluzionatzen ari den, eta ondorioz, prestakuntza desberdina eta, eskaintzan, malgutasun handia eskatzen ditu. Egiten jakiteko prest egon behar da, eta horrek ikasi edo lan egiten dutenak edo langabezian daudenak gaitasun, ezagutza, ahalmen eta trebetasun berriak eskuratzera behartzen ditu, «langile gaituetatik» «talentudun langileetara» eboluzionatuz.

Zeharkako gaitasunak bultzatu behar dira (lan bat egiteko beharrezkoak diren trebetasun teknikoak, aldaketaren kudeaketari buruzko adimen emozionalari buruzko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzea ezinbestekoa den

Inicia su intervención agradeciendo la presencia del Lehendakari.

Señala que la evolución de la ciencia, la tecnología, la economía y la sociedad en general, está siendo sorprendente, una evolución disruptiva. En la forma de vida, las relaciones, en el trabajo, en el acceso a la información se abren un sinnúmero de posibilidades impensables hace unos años, pero, a su vez, se percibe la aparición de nuevos riesgos de enorme complejidad. Complejidad para competir desde nuestros sectores productivos, complejidad para asumir la evolución tecnológica, los importantes avances científicos, y complejidad para gestionar el aspecto humano y los valores intrínsecos a esta visión humanista, tal y como viene poniendo de manifiesto el Lehendakari.

En la actualidad las cosas avanzan muy rápidamente, una evolución de los diferentes sectores productivos que hace que nuestras empresas hayan de luchar, afianzarse y sobrevivir en un marco de competitividad absolutamente abierta. Es la necesaria respuesta a esta coyuntura la que nos obliga a introducir nuevos cambios.

Lo mismo ocurre con el empleo de las personas, que está evolucionando hacia una profesionalidad mucho más compleja, que exige una preparación diferente y una gran flexibilidad en la oferta disponible. Hay que estar preparado para saber hacer y eso obliga a quienes estudian, trabajan o están en el desempleo a adquirir nuevas competencias, conocimientos, capacidades y habilidades, evolucionando desde “trabajadores competentes” a “trabajadores con talento”.

Hay que impulsar las competencias transversales (habilidades técnicas necesarias para desempeñar una labor, al igual que es imprescindible que adquieran habilidades y competencias referidas a la

bezala), bai eta modu eraginkorrean moldatzen lagunduko dieten gainerako trebetasun pertsonalak eta pertsonen artekoak ere.

Horretan guztian oinarrituta, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Legeak ezarritakoa, garatu beharri buruzko Akordioa nabarmendu du sailburuak, baita Lanbide Heziketaren Sistematan jasotzen diren kualifikazioak zabaldu beharra ere, helburu izanda euskal ekoizpen-sistemaren, okupazioaren eta enpleguaren behar espezifikoetara eta izan ditzaketen eraldaketetara egokitzeko erraztasunak ematea.

Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Esparru berri hau garatzeko, lantalde espezifiko bat sortzea proposatu da – gehienez ere hiru hilabeteko epean –, kualifikazio aurreratu berriak aurkitzea ahalbidetuko duen prozedura diseinatzeko eta abian jartzeko, bai eta behar duten pertsonen kualifikazio horiek emateko prozedura eta baldintzak ezartzeko ere, dela lan-merkatuan kalitatezko enpleguen bitartez sartzeko, dela haiei eusteko.

Era berean, Gizarte Elkarrizketaren Mahaiak onar dezan, gaitasunak egiaztatzeke sistema bat diseinatzeko eta abian jartzeko asmoaren berri eman du, gizarte-eragileekin elkarlanean (lanbide-gaitasunak aitortzeko tresna egonkor bat, herritar guztiek prestakuntza-bide ez-formal eta informalek bidez eskuratutako gaitasunak aitortzea bermatzeko, prestakuntza-ibilbide egokiak sortzea erraztuta, lanbide-gaitasunak

inteligencia emocional gestión del cambio, y demás habilidades personales e interpersonales que ayudan a las personas que trabajan a desenvolverse de manera eficiente.

Con base en lo expuesto, el Consejero resalta el Acuerdo sobre la necesidad de desarrollar el Marco Vasco de Cualificaciones y Especializaciones Profesionales establecido en la Ley Vasca de Formación Profesional, con el objetivo de permitir el diseño, desarrollo y la ampliación de las cualificaciones incorporadas en el Sistema de Formación Profesional, con el fin de facilitar la adaptación a las necesidades específicas del sistema productivo vasco, de la ocupación y del empleo y a las transformaciones que les puedan afectar.

Para el desarrollo de este nuevo Marco de Cualificaciones y Especializaciones Profesionales se propone la creación de un grupo de trabajo específico, en el plazo máximo de tres meses, para el diseño y puesta en marcha del procedimiento que permita la detección de nuevas cualificaciones avanzadas, así como del procedimiento y condiciones para dotar de las mismas a las personas que lo precisen, tanto para la incorporación mismas al mercado laboral a través de empleo de calidad, como su mantenimiento en el mismo.

Asimismo, apunta la presentación para su aprobación en la MDS del diseño y puesta en marcha de un sistema de acreditación de la competencia con la colaboración de los agentes sociales (reconocimiento estable de las competencias, que garantice el acceso de toda la población al reconocimiento de dichas competencias adquiridas a través de vías no formales e informales de formación, facilitando la creación de los itinerarios

eskuratu, mantendu eta areagotzeko).

formativos adecuados que posibiliten la adquisición, mantenimiento e incremento de las cualificaciones profesionales).

Lehendakariordeak eskerrak eman dizkio Hezkuntzako sailburuari.

La Vicelehendakari da las gracias al Consejero de Educación.

- Ondoren, Beatriz Artolazabal Berdintasuneko, Justiziako eta Gizarte Politiketako sailburuari eman dio hitza.

- Seguidamente da la palabra a la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, Dña. Beatriz Artolazabal.

Lehenik, lehendakariaren presentzia eskertu du.

Inicia su intervención agradeciendo la presencia del Lehendakari.

Sailburuak adierazi du pertsonez hitz egin nahi duela, erronka demografikoaz, ondo ulertutako berdintasunaz, hura benetakoa izateaz eta gizarte-politikek pertsona guztiei haien bizitza-proiektua garatzeko aukera emateaz.

La Consejera apunta que quiere hablar de las personas, del reto demográfico, de la igualdad bien entendida, que sea real y las políticas sociales permitan a todas las personas desarrollar su proyecto de vida.

Elkarrizketa Sozialaren Mahaian bi lantalde sortu dira genero-berdintasunean aurrera egiteko eta gizarte-politikak lantzeko.

En la MSD se han creado dos grupos de trabajo para avanzar en la igualdad de género y para abordar las políticas sociales.

Genero-berdintasunaren arloan, akordio bat adostu da gizarte-eragileek enpresetan ordainsari-berdintasuna eta berdintasun-planen erregistroa arautzen dituzten Errege Dekretuek ezarritako betebeharrei erantzun ahal izateko.

En el ámbito de la igualdad de género, se ha consensuado un acuerdo para que los agentes sociales puedan dar respuesta a las obligaciones que han de implantarse en las empresas por de los Reales Decretos que regulan la igualdad retributiva y el registro de planes de igualdad en las empresas.

Lege-testuinguru berri horrek gizarte-eragile eta erakunde guztiei eskatuko die epe ertain eta laburrean barne-trebakuntzako prozesu oso biziak garatzea.

Este nuevo contexto legal exigirá a todos los agentes sociales y a las instituciones, el desarrollo a medio y corto plazo de procesos muy intensos de capacitación interna

Lortutako akordioak lehentasunezko jardunarloak ere jasotzen ditu, bai Jaurlaritzarentzat, bai gizarte-eragileentzat, gaikuntzaren garapenean: soldata-arrailearen aurkako borroka (2021-2025 estrategia), prestakuntza-fasean dagoena. Arazo

El acuerdo alcanzado también recoge áreas prioritarias de actuación, tanto para el Gobierno como para los agentes sociales es el desarrollo de capacitación: lucha contra brecha salarial (estrategia 2021-2025), que está en fase de preparación. Se trata de un

konplexu eta sakona da. Genero-ikuspegia ezinbestekoa da, gakoak non dauden detektatzeko eta irtenbide eraldatzaileak planteatzeko aukera ematen duelako.

Soldata-arrakala diziplina anitzekoa denez, funtsezkoa da eragile guztien inplikazioa, desberdintasun-egoera irauli ahal izateko. Adostutako ekimenek enpresa-erakundeen eta sindikatuen gaikuntzarako eta barne-prestakuntzarako programak jasotzen dituzte, berdintasun-planak garatzeko eta berdintasun-batzordeei laguntzeko ekimenetarako. Bi kasuetan, adituek lagundu behar dute. Genero-berdintasunak eta negozioz kolektiboak Emakunderen eta Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) arteko lankidetzan lan hori bultzatzen lagundu behar dute, funtsezkoa baita aurrera egiten jarraitzeko.

Gizarte Politiken aldetik, kontziliazioaren eremuan lan egin da, funtsezkoa baita lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza garatu ahal izateko, kontuan hartuta, gainera, euskal gizartearen egitura berria. Demografikoki aldatzen ari gara, eta kontuan hartu behar da zein izango diren zaintza-beharrak, bai gizartearen ikuspegitik, bai osasunaren ikuspegitik.

Kontziliazioari dagokionez, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian aurkeztu dira proiektuak, eta Saila tresna horiek hedatzen ari da kontziliazio erantzukidea errazteko, bai familientzat, bai enpresentzat. Hori Jaurlaritzaren lana ez ezik, talde osoarena ere bada, eta bakoitzak, bere erantzukizunetik, bere alea jarri behar du.

Zaintza-politikari dagokionez, Elkarrizketa Sozialaren Mahaian gizarte-zaintzako politika baten diseinua aurkeztu da, ikuspegi integral batetik. Beharrezkoa da trantsizio-politika

problema complejo, estructural. La perspectiva de género es imprescindible porque permite detectar dónde están las claves y plantear soluciones transformadoras.

